

IZARRETARAINO LH 5-6



Ikusgarria da gau oskarbiek eskaintzen duten ikuskizuna.


Kultura guztiek egin dute zerua eta lurraren arteko lotura.

HELBURUA

Konstelaziorik ezagunenaren bidez hurrei erakutsiko diegu kultura bakoitzak zeruaren (eta munduaren) berezko interpretazioa egin duela.

EGITEKOAK

- Ikasleei erakutsi “Hartz Handia” konstelazioaren irudia eta esan munduko kulturek eman dioten izenak: Holandan “Zartagina”, Ingalaterran “Goldea” eta Ipar Amerikan “Lapiko Handia”. Greziarrek, berriz, haien mitologiako Calisto ninfa, “Hartza” bihurtuta, zerura igo zuten: “Hartz Handia”



- Eta, nola ikusi du konstelazio hori euskal kulturak? Erronkarin artzaina makilarekin ikusten omen zuten (“Artzaina bere makoareki”) eta Zuberoan idiak, lapurrak eta haien bila joandakoak.
- Irakurri Txilikuk “101 gau” liburuan jasotako Zuberoako kontakizuna. Bukaeran ipuineko pertsonaien izenak konstelazioan jarrita erakutsi.

“Zazpi izarrak” konstelazioa


“Behin batean ba omen zen itzain aberats bat eta egun batez bi lapurrek idi pareka ebatsi zioten, baina konturatu zen eta mutila bidali zuen haren atzetik.

Denbora pasatu eta hura ere ageri ez, eta neskamea bidali zuen morroiaren eta bi lapurren atzetik.

Neskamearen atzetik zaunkaka joan zen etxeko txakur txikia.

Agertzen ez zirenez, nagusia ere haien atzetik joan zen.

Aurkitzen ez zituela eta madarikazioka hasi zen nagusi koitadua. Biraoak gehiegi estimatzen ez zituen norbaitek zigortu egin zuen nagusi hura eta haserretuta, jainkoek euren ekintzetan izan ohi duten arrazoigabekeriarekin, denak ortzian iltzatuta utzi zituen.”



[irudia\(650 x 550 pix.\)](#)¹

- Oharra: Ziur aski komeni da argi kutsadura zer den ikasleei azaltzea, hirian bizi badira zaila baita zeruko izarrek ikustea. Oporretan, mendian edo landa eremuan saiatzeko esan beharko diegu ...

IRAUPENA

Saio bat

OSAGARRIAK

- Bigarren saio batean eskatu ahal zaie ikasleei “Hartz Handia” konstelazioan kokatzeko moduko istorioa asmatzeko.

Iturria: [era.eus-eko artikulua](#)² (moldatua)

¹ <https://drive.google.com/file/d/1Uqz1Wl3hW45B0O2g5fOvwhZewU8PDot/view>

² <https://eranafarroa.eus/udako-zerua/>